



Guka, euskaraz eraikitako herria aldarrikatzeko espazioa

Joan dira San Faustoak. Jai osteak nekea eta poza utzi dizkigu, baina, batez ere, gauzak auzolanean eta giro onean egindakoak uzten duen aho zapore gozoa. Ehundaka eta ehundaka lagun batu dira aurten ere txosnagunera egunez zein gauzez izandako ekintzetan parte hartzera. Eta eragile eta jendetza horren artean, guk geure txokoa izan dugu, guka aritzeko txokoa. Berbaz eta esamoldez betetako pankarta baten babesera batu gara euskaraz bizi gura dugula aldarrikatzen dugun hamaika lagun. Izan ere, hori da guka, euskaraz eraikitako herria aldarritzeko espazioa.

Joan dira San Faustoak eta guk eskerrak eman gura dizkizuegu. Zuen ilusioagatik eta lanagatik. Lehenengo pertsona hori plural egiteagatik.

Joan dira San Faustoak, eta orain non dago guka? Galdetuko du batek baino gehiagok. Guka osatzen dugun eragileok eguneroko lanean buru-belarri gabiltza dagoeneko, ahaztu gabe, egiten den lanak noizean behin erakusleiko bat edo beste behar izaten duela. Horretarako, ahalegin berezia egingo dugu datorren urte honetan; izan ere, gukatarrok elkarlan jarraioan eta estuagoan ariko gara. Hori horrela izan

dadin lanerako gogoa eta ilusioa badaukagu, baina, horrez gain, ezinbestekoa da guretzat zutako bakoitzaren babesa eta laguntza.

Joan dira San Faustoak eta ikasi dugu zerbait: asko gara Durangaldean euskaraz bizi garenak, asko gara euskaraz bizi guran gabiltzanak eta, batez ere, asko gara eta asko egin dezakegula erakutsi dugu. Horregatik, jaiak emandako bultzadatzako urte osoko arrastoa behar du. Leku berean bizi gara denok, baina elkartu egin behar dugu, elkar hartu eta norabide berean egin behar dugu aurrera.



Gogoetan murgilduko da Plateruena

9 urte bete berri ditu Plateruena kafe antzokiak. Ekitaldi xumea bezain landua prestatu ziguten plateruek bederatzi urteak ospatzeko, zenbait oroitzen gogora ekartzeko, proiektua egiten ari den bide emankorra erakusteko...

2004an zabaldu zituen ateak, baina egia esateko, urtebete lehenago ere proiektua martxan zegoen. Sasoi berrietara egokitu beharra aipatzen da aspaldian, baina hau ez da kontu be-

rria. Bizitza bera egokitzen prozesua da-eta. Kontuak kontu, Plateruenak azterketa egitea erabaki zuen uda aurretik eta horretan dihardu.

Hartara, Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzarekin, Plateruenari buruzko galdetegi bat prestatu eta banatu zitzaizen hainbat durangarri. Azterketa egin da, beraz, eta horren arabera, Plateruenaren lana ondo baloratu dute, baina beste ondorio bat ere atera dute:

parte hartzeko bideak erraztu egin behar dira, ateak herritarrei gehiago zabaldu.

Datorren urteko zati handi bat gogoe-tan emango du Plateruenak, egitasmoa berridazteko Durangaldeko kultura zale, sortzaile eta eragileekin batera. Euskal Herriko Unibertsitatea ere hor izango da laguntzen, eta Berbaro kide eta zaleok ere bai. Ea denon artean Plateruena berria eraikitzeko gai garen.



Euskara zerbitzua

**Euskara Zerbitzua kudeatzeko azken lehiaketa irabazi genuenetik lau urte pasa dira, eta lehiaketa berriari begira, Goiatz Etxeita izango da trebatzaile lanposturako aurkeztuko duguna. Iker eta biak etapa berriari buruz berri-
tan izan dira.**

Iker Ajuriagerra: Goiatz, zelan aurreikusten dituzu datozen urteak?

Goiatz Etxeita: Lehenengo eta behin, lehiaketa irabazi beharko dugu, baina

azkeneko lau urtean bidea ederto jorratu duzu, eta zuk egindakoak hobetzeko asmoz nator (kar, kar). Eta zuk zelan ikusten nauzu?

I.A.: Uda honetako fitxajea izan zara. Durangoko euskalgintza ondo ezagutzen duzu. Aurretik di-da komunikazioan eta Anboton ibili izan zara, eta Berbaro euskara elkarterako profil egokia duzu. Udaleko Euskara Zerbitzurako ere, zure lan-esperientziak ziurtasuna ematen

digu. Baina zuk zeuk, zertan eragin nahi duzu?

G.E.: Udaleko zerbitzuek Durangoko euskaltzaleon beharriari erantzutea da nire erronketako bat. Udala kontziente izan behar da herritarrei zerbitzuak gaztelaniaz beste eman behar zaizkiela, eta euskaltzaleok jakitun izan behar gara Udalak horretan eragiteko konpromisoa duela. Bestalde, Guk euskeraz kanpainarekin nabil jo eta su. Horren bidez, merkatariei eta tabernariei euskaraz jarduten lagundu nahi diegu. Eta zuk, Iker, etapa hau bukatu orduko baduzu zer bait esateko?

I.A.: Hasi nintzenean ez nekien zer egiteko aukera izan nezakeen. Esan behar dut, asko harritu nintzela langileen % 80k euskara titulua zutela ohartu nintzenean, eta gutxi baliitz, gehientsuenek borondate ona zutela euskara euren lan hizkuntza bihurtzeko. Hori horrela, helburu garrantzitsuak lor daitezkeela uste dut. Horretarako bidea egiten aritu naiz, eta asko poztuko nintzateke datozen urteetan helburu horiek betetzea lortuko bazenu.

Ume eta gazte etorkinak "gurean euskaraz"



Urria eta azaroa bitartean hasi dugu ikasturte honetako Gurean Euskaraz proiektua. Aurten, Durangon 80 bat ume eta gaztetxok parte hartuko dute, lurretan 20 inguruk eta Berrizen, 30ek.

Hizkuntza ugari entzun daitezke gurean, beste batzuen artean, wolofa, hassaniera, urduera, txinera, portugesa, kitxua, frantsesa, errumaniera, arabiera, katalana, galegoa, herrialde eta leku desberdinetako espainiera, gaztelania, eta nola ez, euskara. Azken hau baita, txoko guztietako hizkuntzak gutxietsi eta baztertu gabe, gu batzen gaituena.

Proiektu honek urteak daramatza martxan, eta urtez urte aldaketa eta hobekuntza txikiak egiten saiatzen gara. Esaterako, Durangoko taldea herriko euskal komunitatera hurbiltzeko, herriko elkarte, talde eta pertsona desberdinekin elkartuko gara. Hainbat izango dira aurten landuko ditugun gaiak eta izango ditugun bisita edo irteera txikiak: euskal dantzak, irakurzaletasuna, antzerkia, ohitura zaharrak, kirola, sukaldaritz... Jakintzak elkartrukatu eta gauza berriak ikasteko ekin-tzak egingo ditugu. Beti ere, helburua euskaraz hitz egiteko giro eta guneak sortzea izango da.

Bertako hizkuntza izan daitekeelako, integrazioa, aniztasuna eta elkarbizitza bultzatzeko tresnarik eraginkorra.

Sormena dantzan, Kurutziaza ikastolan

Sormena martxan jarria dugu jada Kurutziaza ikastolako eguerdiko tarteetan. 4 eta 7 urte bitarteko 70 bat ikaslek parte hartzen dute as-tero Berbarok ikastolan burutzen duen proiektuan. Eguerditan Artista! Eta hauek bai artistak! Barre eta algara artean eskulan ugari egiten dituzte etxeko txikiek artista ezberdinak ezagutzuz, baliabide ezberdinak erabiliz eta irudimenari bidea emanez.

Arkitektura tailerra ere abian da aurtengoan, inguratzen gaituen espazioarekiko interesa piztu, material eta forma ezberdinekin esperimentatu, eta hainbat egitura aztertze-ko aukera izango dute parte hartzen duten ikasleek.

Hau hasi besterik ez da egin, ikasturtea potente dator-eta: kamiseta inprimaketa tailerra, sukaldaritz, moda diseinua, bitxigintza... Ez da aspertzeko tarterik egongo!



Olgetanek bisita egin du Plateruenara

Udalekuen ondoren, merezitako opor-rrak hartu eta ikasturte berria prestatzen hasita, indarberrituta bueltatu ginen urriaren 28an Plateruenako eszenatokira. Gogotsu ari gara ludotekan astelehenetik asteazkenera, Nerea eta Monika buru-belarri ari direlarik bertan. Nik bisitatxoa egiten diet noizean behin, zelako ondo pasatzen duten ikusteko, ideiak propo-

satzeko eta gauza berriak prestatzeko. Asko gustatzen zaizkit marrazketa txokoko tailerrak, irakurketan dauden liburuak, sinbolizazioko materiala, eta batez ere, gustuko dut mozarrotzea txerriz, suhiltzailez... Aurrekoan sukaldaritz tailerrean parte hartze-ko aukera ere izan nuen. Ederra bertan da- goen giroa! Ea hurrengoan elkarrekin jolasteko aukera dugun! **"Olgetan"**

